



JOKABIDE KODEA





Gure erabakiek eta ekintzek egunez egun eraikitzen dute gure benetako izaera, eta, horretan, printzipioak, balioak eta jokabideak ditugu inspirazio-iturri. AMPOn argi dugu gure ikuspegia. Argi dugu norantz goazen. Proiektu kooperatiboa izan nahi dugu eta gure bezeroen beharretara egokitutako soluzioak eskaini nahi ditugu, mundu osoan energiaren sektoreko erreferente izan gaitezen. Alabaina, balio erantsi hori modu jasangarrian eta etikoan eskaini behar diegu bezeroei, gizartearen aurrerabideari begira.

Horrenbestez, AMPO proiektua osatzen dugun pertsona guztion erantzukizuna ezinbestekoa da gizartearekin dugun konpromisoa indartzen jarraitzeko. Erantzukizun hori portaera etiko egokian oinarritzen da, hots, ondoren aurkeztuko dugun Jokabide Kodean ezartzen diren irizpideen arabera portaera etikoan. AMPO taldea osatzen dugun pertsona guztiok bete behar dugu konpromiso hori; geure egin behar dugu konpromiso hori eta gure eguneroko erabaketan eta ekintzetan aplikatu behar dugu, beti eredugarri garela.

Jokabide Kodea aplikatzea lagungarria izango da, halaber, gure jardueran laguntzen diguten mundu osoko eragile guztiekin ditugun konfiantzazko harremanak indartzeko, hala nola gure bezeroekin, hornitzaileekin, partner-ekin edo administrazio publikoekin. Horrek, inolako zalantzarik gabe, bikaintasunera hurbilduko gaitu, belaunaldi berriei mundu hobea uzten lagunduko duen bikaintasunera hain zuzen ere.

Hitz hauen bidez AMPOren Jokabide Kodea arretaz irakurtzera eta kodea barneratzera eta aplikatzera animatzen zaituztet, gure proiektu partekatuari bultzada eman diezaiogun. Horrela soilik lortuko dugu portaera etikoaren arloan ere gure sektoreko erreferente izatea. Gure balioei jarraitzen badiogu eta behar bezala jokatzeke konpromiso irmoari zintotasunez eusten badiogu, jarraituko dugu guztion artean etorkizuneko proiektua eraikitzen.

AMPOko Presidentea

AURKIBIDEA

1. SARRERA	5
2. APLIKAZIO-ESPARRUA ETA BETETZEKO BETEBEHARRA	5
3. JOKABIDE-ARAU OROKORRAK	6
3.1. Jokabide profesional zintzoa	6
3.2. Legeak eta barne-arauak errespetatzea, baita AMPO lotzen duten kontratuak ere	6
3.3. Nazio Batuen Erakundearen Mundu Ituna betetzea	6
3.4. AMPOren irudia eta izen ona sustatzea	6
4. PERTSONAK	7
4.1. Aukera-berdintasuna eta diskriminaziorik eza	7
4.2. Bortxazko lanak eta lan neketsuak debekatzea	7
4.3. Gizakien trafikoaren debekua eta atzerritarren babesa	7
4.4. Haur-lanaren debekua eta adingabeen babesa	7
5. LANEKO SEGURTASUNA ETA OSASUNA	8
6. INFORMAZIOAREN KUDEAKETA	8
6.1. Intimitatearen babesa. Datu pertsonalen erabilera	8
6.2. Informazio konfidentzialaren tratamendua eta babesa	8
6.3. Jabetza intelektualeko eta industrialeko eskubideak	9
6.4. Segurtasun informatikoaren babesa eta legez kontrako edukiak deskargatzearen debekua	9
7. HIRUGARRENEKIKO HARREMANAK	10
7.1. AMPOren ondare-errealitatearen egiazkotasuna eta zuzentasuna	10
7.2. Lehia librea, merkaturia eta kontsumitzaileak babestea	10
7.3. Administrazio publikoekiko lankidetzak eta gardentasuna	10
7.4. Hirugarrenekiko harremanak	10
8. USTELKERIAREN AURKAKO POLITIKA	11
8.1. Ustelkeria pribatuaren eta publikoaren prebentzioa	11
8.2. Kapitalak zurritzearen prebentzioa eta terrorismoaren finantzaketaren prebentzioa	12
8.3. Inportazioa eta esportazioa. Kontrabandoaren debekua	12
8.4. Interes-gatazkek	12
9. INGURUMENA	13
10. BALIABIDEEN BABESA ETA ERABILERA	13
11. KODEAREN APLIKAZIOA. JAKINARAZPENAK ETA JARRAIPENA	14
11.1. Indarrean jartzea	14
11.2. Jokabide Kodearen interpretazioa	14
11.3. Betetze Batzordea	15
11.4. Ez-betetzea eta Kanal Etikoari jakinaraztea	15
11.5. Jakinarazpenen konfidentzialtasuna eta errepresalien debekua	15
11.6. Jakinarazpenen izapidetzea	15
11.7. Jakinarazpenak ofizialak ez diren kanalen edo baimendu gabeko pertsona baten bitartez jasotzea	16
11.8. Errugabetasun-presuntzioa eta ohorerako eskubidea	16

1. SARRERA

1. AMPOren asmoa da bere jokabidea eta AMPO osatzen duten Pertsonen jokabidea indarreko legeriaren arabera izateaz gain, Jokabide Kode honetan ezarritako Balio eta Printzipio Etikoen arabera ere izatea.

2. Jokabide Kode hau AMPOren Compliance Programaren barruan biltzen da, eta helburu hau du:

- a) AMPOren Balio eta Printzipio Etikoak eta jokabide-pautak edo -arauak ezartzea, jarduteko gida gisa erabil daitezkeen AMPOren barruan egiten diren jardura profesionalean, baita AMPOko gainerako Pertsonekin, hornitzaileekin, alde interesdunekin, negozio-bazkideekin, bezeroekin, administrazio publikoekin eta, oro har, gizartearekin izaten diren harremanetan ere.
- b) Jardura profesionalean delituzko portaerak eta legez kanpoko edozein portaera prebenitzea, eta portaera etiko egokia lortzeko jardun-eredu komuna eskaintzea.

3. Jokabide Kodeari esker, AMPOn aurrez ezarrita dagoen enpresa-kultura finkatu nahi da.

4. AMPOk irmoki gaitzesten du edozein ekintza ez-zilegi penal eta Jokabide Kode honen aurkako edozein portaera. Jokabide Kode honetan ezarritako Balio eta Printzipio Etikoak benetan eta eraginkortasunez aplikatzen direla zainduko da; ez-betetzeak, berriz, Betetze Batzordeak kudeatuko ditu Barneko Informazio Sistemaren bidez.

2. APLIKAZIO-ESPARRUA ETA BETETZEKO EGINBEHARRA

1. Jokabide Kodeko eta Compliance Programako Balio eta Printzipio Etikoak eta Jokabide Arauak nahitaez bete behar dituzte AMPO osatzen duten Pertsona guztiak.

2. AMPO osatzen duten Pertsonak Jokabide Kode hau ezagutzeko eta betetzeko obligazioa dute.

3. Jokabide Kodea aplikatzeko zaie, halaber, sozietate kontrolatuei eta, ahal den heinean, AMPOren partaidetza duten gainerako sozietateei.

4. Jokabide Kodea hedatuko da, ahal den heinean, AMPOren hornitzaileen artean, alde interesdunen artean, negozio-bazkideen artean eta bezeroen artean.

5. AMPOk edozein esparru geografikotan (tokian bertan zein nazioartean) garatzen dituen jardurei aplikatuko zaie Jokabide Kodea, ahal den alderdi guztietan.

6. Jokabide Kodea Harrera Planaren bidez jakinaraziko zaie AMPO osatzen duten pertsona guztiei. Plan horretan aditzera ematen da nahitaezkoa dela Jokabide Kodea irakurtzea eta betetzea.





3. JOKABIDE-ARAU OROKORRAK

3.1. Jokabide profesional zintzoa

1. AMPOko Pertsonen jokabideak profesionaltasuna eta zintzotasuna izango du ardatz.

- Profesionaltasuna da jardun arduratsua, arretatsua, zuhurra eta efizientea.
- Zintzotasuna da jarduera profesionalean leialtasunez, zuzentasunez eta fede onez jardutea, norberarekiko eta besteekiko errespetuz, eta Pertsonarengan jarritako konfiantzari erantzunez.

2. Pertsonak beren buruarentzat eta besteentzat aplikatuko dituzte Jokabide Kode honetan ezarritako Balio eta Printzipio Etikoak, eta ez dute beren jarduera profesionala erabiliko agindu zaizkien xedeez bestelako xedeetarako.

3.2. Legeak eta barne-arauak errespetatzea, baita AMPO lotzen duten kontratuak ere

1. Pertsona guztiak, haien jarduera profesionalean, indarrean dauden legeria eta barne-arauak beteko dituzte, baita enpresa lotzen duten kontratuak ere, AMPOk jarduten duen lurraldea edozein izanik ere.

2. Pertsonak, Jokabide Kode hau ez ezik, AMPOren Compliance Programa osatzen duten Kontrolak ere bete beharko dituzte.

3. Pertsonak errespetatu beharko dituzte AMPOk hirugarrenekin dituen kontratu-harremanetan bere gain hartutako obligazioak eta konpromisoak, eta, zer herrialdetan garatzen duten beren jarduera profesionala, hango erabilera eta jardunbide egokiak ere bai.

4. Legeria, Jokabide Kodea, Kontrolak edo AMPO lotzen duten kontratuak ez ezagutzeak ez du justifikatuko horiek ez betetzea. AMPOren barruan arau-hauste orokorra dela dioen argudioak ere ez du justifikatuko horiek ez betetzea.

5. Inork ez du legeriaren, Jokabide Kodearen, Kontrolen edo AMPO lotzen duten kontratuen aurkako jarraibiderik edo agindurik eman zein obeditu behar bere jarduera profesionaleko aribidean, nahiz eta enpresan goragoko maila duen Pertsonaren bat izan adierazi edo agindu diona.

6. Lantaldeak kudeatzen edo zuzentzen dituzten Pertsonak:

- Haien jarduera-arloetan eragina duten legeria, Jokabide Kodea, Kontrolak eta kontratuak ezagutu behar dituzte.
- AMPOren jokabide-erreferente izan behar dute.
- Zaindu edo ziurtatu beharko dute beren mende dauden Pertsonak informazio eta prestakuntza egokia jasotzen dutela, haien eginkizunetan eragina duten legeria, Jokabide Kodea, Kontrolak eta AMPO lotzen duten kontratuak ezagut eta bete ditzaten.

3.3. Nazio Batuen Erakundearen Mundu Ituna betetzea

AMPOk erabateko konpromisoa eta lotura adierazten du Giza Eskubideekin, laneko arauekin, ingurumen-arauekin eta ustelkeriaren aurkako arauekin, eta, bereziki, Enpresaren Gizarte Erantzukizuna (EGE) sustatzeko Nazio Batuen Erakundearen Mundu Itunaren (Global Compact) oinarri diren printzipioekin. Ondorio horretarako, AMPOk bere egiten ditu Nazio Batuen Erakundearen Mundu Itunaren printzipioak.

3.4. AMPOren irudia eta izen ona sustatzea

1. AMPOk izen eta irudi ona du, bere esperientzia zabalarri esker eta AMPOren kultura osatzen duten balio eta printzipio etikoekin eta "egiten jakitearekin" konprometituta dagoen talde tekniko fidagarri eta leiala izateari esker.

2. Jarduketan profesional guztietan arreta handiz zaindu beharko da AMPOren irudia eta izen ona. Era berean, hornitzaileen, alde interesdunen, negozio-bazkideen eta bezeroen irudi eta izen on korporatiboaren errespetua eta erabilera zuzena eta egokia zaindu beharko da.

4. PERTSONAK

4.1. Aukera-berdintasuna eta diskriminaziorik eza

1. AMPOk bere gain hartzen du oso-osorik tratu-berdintasunaren printzipioa, diskriminazio oro baztertzuz eta aukera-berdintasunean lan egiteko eskubidea aitortuz. Era berean, AMPOn ez da onartuko jazarpen edo abusu fisikorik, sexualik, psikologikorik edo hitzekorik, ezta bestelako tratu degradatzailekerik ere.

2. Era berean, AMPOk denei aukera berak eskaintzen dizkie lanean hasteko eta lanbidean gora egiteko, eta une oro ziurtatzen du ez dagoela sexu, arraza, sexu-orientazio, adin, ezintasun, gaixotasun, erlijio edo diskriminazio-iturri izan daitekeen beste edozein inguruabarren ondoriozko diskriminaziorik.

3. Hartara, Pertsona guztiak, maila profesional guztietan, elkarrekiko errespetuan, integritatean, adeitasunean, konfiantzan, lankidetzan eta talde-laneko ahaleginean oinarritutako harremanak sustatuko dituzte, eta errespetuzko lan-giroa bultzatuko dute, lan-giro positiboa lor dadin.

4. Kontratazio, hautespen eta/edo sustapen profesionaleko prozesuetan parte hartzen duten enpresako Pertsonak objektibotasunez jardungo dute haien jardueretan eta erabakietan; hartara, bete beharreko lanpostuaren profilerak eta premietara hobekien egokitzen diren pertsonak identifikatu ahal izango dituzte, eta beti aukera-berdintasuna sustatuko dute.

4.2. Bortxazko lanak eta lan neketsuak debekatzea

AMPOk baztertu egiten ditu, eta ez ditu erabiltzen —ez zuzenean eta ez zeharka— langileen borondatea bortxatuz lortutako lanak, hau da, mehatxuen, zigorren edo gabezien bidez lortutakoak edo esklabotzako edo erdi-esklabotzako formulen aplikazioaren bidez lortutakoak.

4.3. Gizakien trafikoaren debekua eta atzerritarren babesa

1. AMPOk bere gain hartzen du atzerritarren babesa, dagokion atzerritartasun-araudia betez.

2. AMPO osatzen duten Pertsonak ez dute laguntzarik emango Europar Batasuneko estatu bateko nazionala ez den pertsona bat Estatuan sartzeko edo Estatu zeharkatzeko, baldin eta aplikatzea den atzerritarren sarrerari edo igarotzeari buruzko legeria urratzen bada.

4.4. Haur-lanaren debekua eta adingabeen babesa

Adingabeen babesa AMPOren Printzipio Etiko bat da, eta berarekin dakar haur-lanik ez erabiltzea. Haur-lantzat jotzen da haurrei haurtzaroa, gaitasunak eta duintasuna kentzen dien eta haurraren garapen fisiko eta psikologikorako kaltegarria den lana.



5. LANEKO SEGURTASUNA ETA OSASUNA

1. Pertsonentzako lan-ingurune eroso eta segurua lortzea lehenetsunezko helburua da AMPOrentzat, lan-baldintzak etengabe hobetzera bidean. AMPOk bidezko jarduerak egiten ditu laneko arriskuen arloan, beti prebentzioaren eta etengabeko hobekuntzaren ikuspegitik. AMPOk, horretarako, laneko arriskuen prebentziorako sistema bat ezarri du eta behar besteko eta beharrezko baliabideekin hornitu du.
2. AMPOk lantoki eta lan-prozesu seguruak, garbiak eta osasungarriak eskaintzen dizkie bere Pertsoneri.
3. Behar dituzten baliabideak ematen zaizkie Pertsoneri, beren jarduera profesionala segurtasun-, ergonomia- eta higiene-neurri egokietan garatzeko, bizitza, osasuna edo integritate fisikoa arriskuan jar ez dezaten.
4. Pertsonak une oro errespetatuko dituzte laneko segurtasunaren eta osasunaren arloan aplikatzekoak diren prebentzio-neurriak; ildo horretan, AMPOk ezarritako baliabideak erabiliko dituzte eta beren lantaldeetako kideek dagozkien jarduerak segurtasun-baldintzetan egiten dituztela ziurtatuko dute.

6. INFORMAZIOAREN KUDEAKETA

6.1. Intimitatearen babesa. Datu pertsonalen erabilera

1. AMPOk Pertsonen intimitate-eskubidea errespetatzen du, intimitatearen agerpen guztietan, baita Internet bidezko eta beste komunikazio-bitarteko batzuen bidezko komunikazio pertsonaletan ere. Zehazki, datu pertsonalen inguruko eskubideak eta pribatutasuna errespetatuko dira beti.
2. Hartara, AMPOk konpromisoa hartu du bertako Pertsonen eta eraginpean hartutako beste hirugarren batzuen inguruko informazio oro babesteko eta datu pertsonalik ez zabaltzeko, horretarako legitimazio-oinarri bat dagoenean izan ezik. Datu pertsonalak ezin izango dira inola ere tratatu legeetan edo kontratuan aurreikusitako xedeez bestelako xede batzuetarako.

6.2. Informazio konfidentzialaren tratamendua eta babesa.

1. AMPOk euskarri informatikoan edo beste edozein euskarritan duen informazio ez-publikoa informazio konfidentzialtzat joko da, oro har.
2. Pertsonak ahalik eta zuhurtzia handienarekin erabiliko dute informazio konfidentziala, eta hura babesteko behar diren bitartekoak jarriko dituzte. Informazio horren edukia ezin izango zaie hirugarrenei eman, Pertsonak baimen zehatza eman ezean, edo kasuan-kasuan eskumena duen AMPOko organoak baimena eman ezean, edo legezko edo epaitegiko errekerimenduren bat egon ezean.



3. Ondorio horietarako, informazioaren erabilerari eta konfidentziasunari buruzko AMPOko barne-arau guztiak ezagutu beharko dira eta proiektuen garapenean bete beharko dira.

4. Hirugarrenen informazioa legezko bideetatik lortuko da. Pertsonak errefusatu egin beharko dute bidegabe lortutako informazioa edo informazioaren jabe legitimoen konfidentziasuna urratuz lortutako informazioa.

5. Informazio konfidentziala AMPOz kanpoko hirugarren batzuen bada, enpresak hirugarrenekin sinaturik dituen konfidentziasun-hitzarmenak bete beharko dituzte Pertsonak.

6. AMPOrekiko lan-harremana eteten bada, Pertsonen konfidentziasun-eginbeharrari eutsiko zaio, eta Pertsona horiek dokumentuak eta biltegiatze-bitartekoak edo -gailuak itzuli beharko dituzte, baita beren terminal informatikoan gordetako informazio konfidentziala ere.

6.3. Jabetza intelektualeko eta industrialeko eskubideak

1. AMPO osatzen duten Pertsonak enpresaren jabetza intelektualaren, jabetza industrialaren eta enpresa-sekretuen inguruko eskubideak errespetatu behar dituzte, proiektuei, prozesuei, teknologiari, "know how"ari eta, oro har, erakundearen sortutako edo garatutako edozein edukiri dagokienez.

2. Pertsonak AMPOren barruko jarduera profesionalean sortutako jabetza intelektuala, jabetza industrial eta enpresa-sekretuak ustiatzeko eskubideak AMPOren titulartasunekoak izango dira.

3. Era berean, AMPOz kanpoko hirugarrenen jabetza intelektualaren eta jabetza industrialaren inguruko eskubideak errespetatu dira, baita haien enpresa-sekretuak ere. Horrenbestez, Pertsona guztiak ahaleginduko dira jabetza intelektualaren, jabetza industrialaren eta enpresa-sekretuen inguruko eskubideekin lotzen den informazioa babesten. Kasuan-kasuan, eskubide horien legezko titularren lizentziak edo baimenak eskatu beharko dituzte, baita hirugarrenen markak, logoak eta bestelako ezaugarri bereizgarriak erabiltzeko lizentziak edo baimenak ere.

4. Eskaintzetan edo aurkezpenetan ezin izango dira beste batzuen logoak edo markak erabili, aldez aurretik eta espresuki horien baimena lortu gabe. Bestalde, ezin izango dira AMPOren logoak edo markak erabili xede pertsonaletarako edo enpresaren interesez, ezagutzaz eta borondateaz kanpoko xedeetarako.

6.4. Segurtasun informatikoaren babesa eta legez kontrako edukiak deskargatzearen debekua

1. AMPO segurtasun informatikoa babesten saiatzen da, eta debekuz eragozten du baimenik gabeko softwarea erabiltzea eta AMPOren ekipamendu informatikoan software maltzurak deskargatzea, instalatzea eta erabiltzea, baita dagokien erabiltze-lizentzia egokirik ez duten eta Enpresaren edo hirugarren batzuen sistema informatikoen segurtasuna arriskuan jar lezakeen elementu kaltegarriren bat sar dezaketen edonolako beste programa edo aplikazio informatikoak ere.

2. AMPOk espresuki debekatzen du legez kanpoko edukiak deskargatzea bide informatikoen bitartez.



7. HIRUGARRENEKIKO HARREMANAK

7.1. AMPOren ondare-errealitatearen egiazkotasuna eta zuzentasuna

1. AMPOren ekonomia- eta finantza-informazioak zehaztasunez islatuko du bere ondare-errealitatea, oro har onartzen diren kontabilitate-printzipioen arabera eta aplikatzekoak diren finantza-informazioko nazioarteko arauen arabera.

2. Inork ez du AMPOren kontabilitate-erregistroen eta txostenen informazioa ezkutatuko edo desitxuratuko; informazio hori osoa, egiazkoa eta zehatza izango da.

3. AMPOK bere gain hartzen du merkatuei eta gizarteari, oro har, informazio fidagarria helarazteko konpromisoa, AMPOren irudi zehatza osatu ahal izateko.

4. Espresuki debekatuta dago hartzekodunei kalte edo pribilegio desegokia eragingo dien ekintza edo ez-egite oro, baita obligazioak sortzen dituen ondare-xedapeneko egintza oro, baldin eta edozein bahitura edo prozedura judizial, estrajudizial edo administratiboren eraginkortasuna luzatzen, zailtzen edo eragozten badu.

7.2. Lehia librea, merkatua eta kontsumitzaileak babestea

1. AMPOK lehia librea ez eragozteko konpromisoa hartzen du. AMPOK lehia babesteko araudia beteko du, lehiaren kolusioa, gehiegikeria edo murrizketa eragin dezakeen edo prezioak alda ditzakeen edozein jokabide saihestuz.

2. Ez da jarduera desleialik egingo eta ez da AMPOren jardueraren publizitate engainagarririk edo iraingarririk egingo, ezta lehiakideen edo hirugarrenen jarduerarena ere.

7.3. Administrazio publikoekiko lankidetzaren eta gardentasuna

1. Agintari, erakunde arautzaile eta administrazio publikoekiko harremanak lankidetzaren eta gardentasun-printzipioen arabera planteatuko dira.

2. AMPOK Administrazio Publikoekin dituen eginbeharrak beteko ditu, bereziki Ogasun Publikoarekin eta Gizarte Segurantzarekin zerikusia dutenak; horrez gain, ezartzen dituen lan-harreman guztiak legezkoak direla ziurtatuko du, baita diru-laguntzak jasotzen dituzten lan-harremanen kasuan edo AMPO kontratu publikoen adjudikaziodun den lan-harremanen kasuan ere.

3. Espresuki debekatzen dira Ogasun Publikoaren, Gizarte Segurantzaren eta antzeko erakundeen kaltetan izango liratekeen zerga-obligazioak saihesteko edo onurak lortzeko jokabideak.

7.4. Hirugarrenekiko harremanak

1. AMPOK zuhertasunez eta arretaz hartuko ditu erabakiak eta zuhertasunez eta arretaz jardungo du kontratazio-jardueretan; beti zainduko du bere finantza-jasangarritasuna, eta berariaz debekatuko du enpresaren edo hirugarrenen kaudimengabezia arriskuan jar dezakeen edozein jarduera.





2. AMPOk jasagarritasuna eta gizarte-erantzukizuna oinarri dituzten irizpideak erabiltzen ditu hornitzaileak hautatzeko prozesuetan, eta, horretarako, gizarte-erantzukizuneko jardunbideak aplikatzea sustatzen du, erakundearen hornikuntza-katearen bidez. Pertsona guztiak kalitate, egokitasun, kostu eta jasagarritasuneko irizpideak aplikatu beharko dituzte hornitzaileak, alde interesdunak, negozio-bazkideak eta bezeroak hautatzeko prozesuetan, eta beti jardungo dute AMPOren interesen alde.

3. Hornitzaileek, alde interesdunek, negozio-bazkideek eta bezeroek Jokabide Kode hau ezagutzea eta, ahal den neurrian, betetzea sustatuko da, bertan jasotako balio eta printzipio etikoak ahalik eta modurik egokienean aplikatu daitezkeen.

8. USTELKERIAREN AURKAKO POLITIKA

8.1. Ustelkeria pribatuaren eta publikoaren prebentzioa

1. AMPO ustelkeria ororen aurka dago, baita, onura edo abantailaren bat lortzeko asmoz, AMPOkoak ez diren pertsonen borondatean legez kontra eragitearen aurka ere. Ustelkeria-, eroskeria- edo estortsio-egintzak berariaz debekatuta daude, barnean direla legez kanpoko edozein abantaila zuzenean edo zeharka eskaintzea edo hitz ematea, edota influentzia-trafikoa.

2. Horrenbestez, Pertsonak hornitzaileekin, alde interesdunekin, negozio-bazkideekin, bezeroekin eta administrazio publikoekin —nazionalekin zein hirugarren herrialde batzuetakoekin— dituzten harremanetan, ez dute partikular, agintari edo funtzionario publiko bat bultzatuko inpartzialtasun-eginbeharrak haustera edo edozein lege-agindu haustera. Atal honetan ezarritako debekuak aplikatuko zaizkie, halaber, partikularrekin, agintariarekin edo funtzionario publikoarekin lotura estua duten pertsonari, familiakoak izan edo lagunak izan.

3. AMPOk ez du, bere kabuz edo tarteko beste pertsona baten bidez, alderdi politikoen legez kanpoko finantzaketa izan daitekeen dohaintzarik edo ekarpenik egingo, ezta mailegu edo aurrerakin gisa ere.

4. Opariak AMPO markaren irudia sustatzera zuzenduko dira. Ezin izango da oparirik, mesederik edo konpentsaziorik eman, ez zuzenean, ez zeharka, ez eskudirutan, ez gauzatan —edozein motatakoak direla ere—, AMPOren harremanetan legez kontrako eragina izateko.

5. Opariak ematea eta onartzea baimenduko da, baldin eta balio ekonomiko mugatua edo sinbolikoa badute eta kortesiazko zeinuekin edo ohiko merkataritza-arretarekin lotzen badira.

6. Eskaintako edo jasotako opariek atal honetako eskakizunak bete ezean, uko egin beharko zaie edo itzuli egin beharko dira.

7. Edonola ere, inguruabar eta kultura jakin batzuetan, fede onez eskaintako opariari uko egiteak sentiberatasunik eza erakuts dezake edo, are gehiago, negozio-harremman bati kalte egin diezaiolke. Horrelakoetan, oparia AMPOren izenean onartuko da, eta oparia jasotzen duen pertsonak berehala emango die horren berri enpresako zuzeneko agintariari eta Betetze Batzordeari. Opari hori Pertsonak Kudeatzeko Taldeari emango zaio, eta Talde horrek pertsona horri oparia Taldearen esku utzi izanaren agiria emango dio eta AMPOko oparien inbentarioan sartuko du oparia, gizarte-intereseko helburuetarako erabil dadin.

8.2. Kapitalak zuritzearen prebentzioa eta terrorismoaren finantzaketaren prebentzioa

1. AMPOk une oro beteko ditu kapitalak zuritzeari eta terrorismoa finantzatzeari buruz aplikatzekoak diren lege nazionalak eta nazioartekoak, eta laguntza osoa eskainiko die agintariei kapitalak zuritzearen aurkako borrokan edo legez kanpoko edozein jarduera finantzatzearen aurkako borrokan.

2. Bezeroak identifikatzeko neurriak aplikatuko dira, baita arlo horretan ezarritako informazioa eta barne-kontrola ere, eta ahalik eta laguntzarik handiena emango zaie agintari eskudunei.

8.3. Inportazioa eta esportazioa. Kontrabandoaren debekua

1. Inportazio- eta esportazio-jardueretan, aplikatzekoa den legeriak, AMPOren barne-araudiak eta gainerako operadoreen kanpo-araudiak ezarritako eginbeharrak bete beharko dira.

2. Horrenbestez, espresuki debekatuta daude kontrabandoarekin zerikusia izan dezaketen jarduketak. Jarduera debekatu bat ote den zalantzak izanez gero, Betetze Batzordeari kontsultatu beharko zaio.

8.4. Interes-gatazkak

1. AMPOko Pertsonen interes-gatazkako egoerak saihestu beharko dituzte.

2. Interes-gatazka sortzen dela ulertuko da kanpoko negozio-interesek, finantza-interesek, familia-interesek, politika-interesek edo interes pertsonalek AMPOko kideen iritzian eragina izan dezaketenean, betiere AMPOrentzat egin beharreko lanen barruan.

3. AMPOko Pertsona bati lotutako pertsonatzat hartuko dira: Pertsonaren ezkontidea edo antzeko afektibitate-harremana duen pertsona; Pertsonaren edo haren ezkontidearen (edo antzeko afektibitate-harremana duen pertsonaren) aurrekoak, ondorengoak eta anai-arrebak; eta Pertsona horrekin edo hari lotutako pertsonekin zerikusia duten sozietateak edo enpresak (pertsona horiek kontrolatzen dituztenean, bertan administrazio-kargu bat dutenean edo, zuzenean edo zeharka, sozietate edo enpresa horien finantza-erabaketan edo erabaki operatiboetan eragin esanguratsua dutenean).

4. Interes-gatazka batean dagoen Pertsonak lehenbailehen jakinaraziko dio bere zuzeneko agintariari zein interes-gatazkatan dagoen. Interes-gatazka ote dagoen zalantza izanez gero, Betetze Batzordearen interpretazioari jarraituko zaio. Era berean, interes-gatazka baten eraginpean dagoen Pertsonak ez du esku hartuko edo ez du eragingo interes-gatazkaren eraginpean dauden erabaketan, eta ezin izango du erabaki horiek planteatzen diren bileretan parte hartu, ezta interes-gatazka horri buruzko informazioa eskuratu ere.



9. INGURUMENA

1. AMPOk proposatzen duen garapen jasangarriko ereduak bateragarri egingo ditu bere jardueraren garapena eta ingurumenaren babesa. Eredu horrek indarreko legeria beteko du eta prebentzioaren eta etengabeko hobekuntzaren ikuspegia hartuko du barnean; gainera, beharrezko baliabideak eta trebakuntza jarriko ditu Pertsonen esku.

2. Pertsonak konpromiso aktibo eta arduratsua hartzen dute ingurumena zaintzearekin, eta jakitun dira AMPOren zer jarduerak, produktuk eta zerbitzuek izan dezaketen eragina ingurumenean eta eragin dezaketen inpaktuen bat.

3. Ondorio horietarako, AMPOko Pertsonak legezko eskakizunak errespetatuko dituzte, eta AMPOren jarraibideak, zehaztapenak eta prozedurak bete beharko dituzte beren jardueraren ingurumen-inpaktua murrizteko. AMPOko Pertsonak barne- eta kanpo-araudien (ISO 14001) jarraibideak betetzen dituzte, eta arreta berezia jartzen diote ingurune natural sentikorrari (Natura 2000 Sarea). Horrez gain, zorrotz betetzen dituzte arriskutsuak izan daitezkeen hondakinen eta materialen kudeaketarako ezarritako protokoloak.

4. AMPOk urbanizazioaren, eraikuntzaren edo eraikingintzaren arloan egiten dituen jarduketetan, zorrotz beteko da kasuan-kasuan aplikatzekoa den hirigintzako eta administraziozko legeria.

5. AMPOko Pertsonak AMPOk haien esku jartzen dituen instalazioak, aktiboak eta baliabideak erabiltzearen ondoriozko ingurumen-inpaktuek murrizten ahaleginduko dira.

6. Arreta berezia jarri beharko da lehergailuak, substantzia sukoiak edo korrosiboak, toxikoak edo itogarriak manipulatu, eduki edo garraiatzean, edo pertsonen osasuna edo ingurumena arriskuan jar dezaketen beste edozein materia, aparatu edo artifizio manipulatu, eduki eta garraiatzean.

10. BALIABIDEEN BABESA ETA ERABILERA

1. AMPOk Pertsonen esku jartzen dituen jardueraren profesionalerako behar dituzten aktiboak eta baliabideak, hala nola komunikazio-bitartekoak —telematikokoak barne—, sistema eta ekipamendu informatikoak, baliabide teknologikoak, instalazioak eta AMPOren finantza-baliabideak.

2. Pertsonak AMPOren aktiboak eta baliabideak babestu eta zaindu beharko dituzte, galdu edo kaltetu ez daitezkeen, lapurtu ez dituzaten edo AMPOren interesetarako kaltegarri izan daitezkeen erabilera desegokirik egin ez dadin.

3. Pertsonak modu arduratsuan erabiliko dituzte AMPOren aktiboak eta baliabide horiek, eta erabilera hori AMPOk ezarritako pauten arabera izango da, beren jardueraren profesionala efizientziaz egin ahal izan dezaten, denbora eta AMPOk beren esku jartzen dituen aktiboak eta baliabideak errentabilizatuz.





11. KODEAREN APLIKAZIOA. JAKINARAZPENAK ETA JARRAIPENA

11.1. Indarrean jartzea

1. Jokabide Kode hau indarrean dago AMPO Koop.E. sozietateko Zuzendaritza Kontseiluak onartu zuenetik, hau da, 2021eko maiatzaren 13tik aurrera, zenbait aldiz eguneratu da Zuzendaritza Kontseiluak erabakita, eta indarrean egongo da, harik eta hura indargabetzeko, berrikusteko edo eguneratzeko edota hura ordeztuko duen beste bat indarrean jartzeko berriazko erabakia hartu arte.

2. Jokabide Kodearen edozein ez-betetze Betetze Batzordeari jakinarazi beharko zaio, organo horrek baitu Jokabide Kode hau betetzen dela eta behar bezala aplikatzen dela zaintzeko eskumena.

11.2. Jokabide Kodearen interpretazioa

1. Jokabide Kode honen eta Compliance Programa osatzen duen edozein Kontrolen artean desadostasunik badaude, Jokabide Kodea nagusituko da. Era berean, Kontrolak Jokabide Kode honen izaeraren eta helburuaren arabera interpretatuko dira.

2. Betetze Batzordeari dagokio Jokabide Kodearen edukia interpretatzea. Hartzaile guztiek nahitaez bete beharko dituzte Batzordeak egiten dituen interpretazioak.

3. Betetze Batzordeak argituko du Jokabide Kodearen interpretazioari buruz sortzen den edozein zalantza, betetze-koordinatzaileari jakinaraztearen bidez.

11.3. Betetze Batzordea

1. Betetze Batzordearen ardura da AMPO osatzen duten Pertsonak Jokabide Kodean ezarritakoa betetzen dutela bermatzea.

2. Betetze Batzordeak Betetze Eginkizunen berezko gai guztietan du eskumena. Betetze Batzordearen osaera, funtzionamendua, funtzioak eta gainerako alderdiak Batzorde horren Araudian arautzen dira.

3. Betetze Batzordeak prestatzen eta proposatzen ditu AMPOren Compliance Programako Kontrol guztiak, Pertsonak nahitaez bete beharrekoak.

11.4. Ez-betetzea eta Kanal Etikoari jakinaraztea

1. Jokabide Kode hau ez betetzeak lan- edo sozietate-zehapenak eragin ditzake, alde batera utzi gabe ez-betetzeak ekar ditzakeen administrazio- edo zigor-zehapenak.

2. Ez-betetze bat gertatu dela dakien orok zuzenean jakinarazi beharko du ez-betetze hori Barneko Informazio Sistemaren bidez.

3. Jakinarazpenak jakinarazpenen kudeaketaren eta izapidetzearen arduradun operatibo (BISA) izendatzen den (eta, aldi berean, AMPO TALDEKO Betetze Batzordeko kidea den) pertsona fisikoak kudeatu eta izapidetuko ditu. Betetze Batzordea Barneko Informazio Sistemaren Organo Arduraduna (BISOA) da, eta BISAREN esku uzten ditu Barneko Informazio Sistemaren ikerketa-espeditentak kudeatu eta izapidetzeko funtzioak.

4. Ezagutzen den ez-betetzea ez jakinaraztea Jokabide Kode honen arau-haustetzat joko da. Jokabide Kodea urratzen duen gertakari edo gorabehera bat ezkutatzea ez da AMPOren interesaren aldeko jarduketatzat hartuko.

5. Barneko Informazio Sistemari jakinarazteko, honako baliabide hauek erabili ahal izango dira:

- Kanal elektronikoa:
<https://www.ampo.com/eu/barne-informazio-sistema/>
- Informatzaileak, nahi izanez gero, hitzordua eskatu ahal izango du BISArekin bilera presentzial bat egiteko. Bilera horretan, gertakariak azaldu eta, hala badagokio, dokumentuak edo beste froga-elementu batzuk aurkeztu ahal izango ditu.

6. Informatzaileari Barneko Informazio Sistemari egindako jakinarazpenaren inguruko aurrerapenen berri emango zaio, Jakinarazpenak Kudeatzeko Prozeduran aurreikusitakoari jarraikiz.

11.5. Jakinarazpenen konfidentzialtasuna eta errepresalien debekua

1. AMPOk Barneko Informazio Sistemari aurkezten zaizkion jakinarazpenen eta haien edukiaren inguruko konfidentzialtasuna bermatuko du. Era berean, Barneko Informazio Sistemak jakinarazpena modu anonimoz egiteko aukera bermatuko du.

2. Barneko Informazio Sistemaren jakinarazpen guztiak kudeatzean, informatzailea babesteko otsailaren 20ko 2/2023 Legearen eskakizunak eta datu pertsonalak babesteari buruzko araudia beteko dira.

3. Debekatuta dago jakinarazpen bat egiteagatik errepresalia bat edo edozein ondorio negatibo dakarren ezein neurri hartzea. Jakinarazpena egin duenaren aurkako errepresaliak Jokabide Kode honen arau-haustetzat joko dira.

4. Aurreko paragrafoan aurreikusitako errepresalien debekuak ez du bidezko diziplina-neurriak hartzea eragotziko, baldin eta barne-ikerketak zehazten badu jakinarazpena faltsua eta asmo txarrez egindakoa dela.

11.6. Jakinarazpenen izapidetzea

1. Barneko Informazio Sistemaren bidez jasotzen diren jakinarazpen guztien erregistro bat egingo da.

2. Jakinarazpen bat jaso ondoren, Barneko Informazio Sistemaren prozedura hasiko da, AMPOren Jakinarazpenak Kudeatzeko Prozeduran aurreikusitako mugari eta betekizunei jarraikiz. Haien artean, honako hauek daude: konfidentzialtasuna bermatzea, informatzailearen eta eraginpean hartutako pertsonaren eskubideak bermatzea, informatzaileari hartu-agiria bidaltzea, jakinarazpena onartzea edo ez onartzea, eta Betetze Batzordeak azken txostena egitea.

3. Egiten den barne-ikerketaren barruan, AMPOren edozein arlo edo negoziari buruz bidezkotzat hartzen den informazio eta dokumentazio guztia bildu ahal izango da konfidentzialtasunez.

4. Jakinarazpenak BISA edo Betetze Batzordeko edozein kide eraginpean hartzen badu, pertsona horrek ezin izango du parte hartu izapidetzean, eta Jakinarazpenak Kudeatzeko Prozeduran kasu horretarako ezarritakoa aplikatuko da.

5. Prozedura hori Betetze Batzordearen Azken Txostenarekin amaituko da. Txosten hori Zuzendaritza Kontseiluari edo dagokion organoari helaraziko zaio. Azken Txostenak, hala badagokio, bidezko diziplina-neurriak proposatuko ditu, aplikatu beharreko lan-legeria aplikatuz, eta, bereziki, Langileen Estatutua, aplikatu beharreko hitzarmen kolektiboak eta/edo Barne Erregimeneko Araudia eta AMPO osatzen duten pertsonen aplikatu dakiekeen eta Jakinarazpenak Kudeatzeko Prozedurari amaiera emateko Azken Txostenaren ondoren bidezkoa den beste edozein gizarte- eta lan-arau. Eta, hori guztia, hala badagokio bidezkoak diren administrazio- edo zigor-zehapenak galarazi gabe.





11.7. Jakinarazpenak ofizialak ez diren kanalen edo baimendu gabeko pertsona baten bitartez jasotzea.

AMPOk ezarritakoak ez diren salaketa-kanalen bidez edo tratamenduaz arduratzen ez diren langileei igorritako jakinarazpen bat jasotzen duen pertsonak konfidentzialtasuna bermatu beharko du, eta AMPOko BISARI igorri beharko dio jakinarazpena berehala.

Jasotzaileak eraginpean hartutako pertsonen eta jakinarazpenean aipatzen den edozein hirugarrenen (eta, bereziki, informatzailearen) identitatea gorde eta haien datuen konfidentzialtasuna bermatu beharko du.

Konfidentzialtasun-eginbearra urratzea arau-hauste administratibo oso larritzat hartuko da, arau-hausteei eta ustelkeriaren aurkako borrokari buruzko informazioa ematen duten pertsonak babesteari buruzko otsailaren 20ko 2/2023 Legean aurreikusitakoari jarraikiz, eta, era berean, ekintza ez-zilegi penala izan daiteke.

11.8.- Errugabetasun-presuntzioa eta ohorerako eskubidea

Eraginpean hartutako pertsonen errugabetasun-presuntzioa eta ohorerako eskubidea errespetatu behar dira.



AMPO HEADQUARTERS

Katea Auzoa Z/G. 20213 Idiazabal,

Gipuzkoa, Spain.

Tel. +34 943 188 000

www.ampo.com ampo@ampo.com